



ESKAILERA MEKANIKOEN FABRIKAZIOA, HORNIDURA, MUNTAIA ETA MANTENTZEA

**KONTRATAZIO-OINARRIAK
2021eko otsaila**

Kontratazio-oinarri hauen xedea kontratu-baldintzak eta baldintza teknikoak ezartzea da. Baldintza horien arabera garatuko da prozedura San Mames estadioko eskailera mekanikoen fabrikazioari, hornidurari, muntaiari eta mantentzeari dagozkion lanak kontratatzeko, eta, ondoren, gauzatzeko.

Oinarriok honako atal hauek dituzte:

I. eranskina – Lizitazioa eta kontratua arautzeko klausulen agiria

II. eranskina.- Baldintza partikularrak

III. eranskina- Baldintza orokorrak

- Memoria, Planoak, Baldintza-agiri Teknikoak, Aurrekontua, Segurtasuna eta Osasuna, Kalitate Kontrola, Hondakinen Kudeaketa eta gainerako agiri teknikoak





LIZITAZOA ETA KONTRATUA ARAUTZEKO KLAUSULEN AGIRIA

KARATULA

A.- KONTRATUAREN XEDEA

SAN MAMES ESTADIOKO ESKAILERA MEKANIKOEN FABRIKAZIOA, HORNIDURA, MUNTAIA ETA MANTENTZEA.

B.- KONTRATAZIO-ORGANOA

ATHLETIC CLUB

C.- GEHIENEZKO LIZITAZIO-AURREKONTUA

Ez da ezarri.

D.- PREZIOAREN GAINEKO OINARRIZKO BALDINTZAK:

Kontratuaren prezioa oroharrekoa, finkoa eta itxia da, eta, ondorioz, aldaezina. Horrenbestez, ez zaio inolako aldaketarik egingo, lanak guztiz burutu arte gauzatu beharreko obra-unitateak eta haien neurketak edozein direla ere, aplikatu daitezkeen kontratu-agirien eta araudien, erregelamenduen eta organo eskudunek emandako gomendioen arabera.

Hala eta guzti ere, eskainitako prezio unitarioen zerrenda loteslea izango da kontratistarentzat, eta prezio horiek hartuko lirateke erreferentziatzat Athletic Clubek irismena handiagotzea edo/eta kontratuan aldaketak egitea eskatuko balu.

Hori horrela izanda ere, Athletic Clubek erabakitzen badu kontratuan jasotako partidaren batean zerbait ezabatzea edo unitate-kopurua murriztea, ez du partida hori osorik ordaindu beharko, eta dagokion neurrian gutxituko da prezioa. Athletic Clubek eskubidea izango du, esleipena egin aurretik eta ondoren, kontratua egikaritzen ari den bitartean, Prestaziori dagokionez egoki iruditzen zaizkion aldaketak eskatzeko esleipendunari; esate baterako, obra-unitateak kentzea, unitate gehiago gauzatzea, haien ezaugarriak aldatzea eta Prestazioarekin zerikusia duten lan osagarriak egitea, eta Kontratatistak horiek gauzatzeko beharra izango du.

Era berean, neurketa-agirian hautazko modura ezarritako partidak gauzatzeko eskatu ahal izango du Athletic Clubek. Hala bada, jatorrizko partidetatik aterako dira ordezkapenari dagozkion neurketa edo partida osoak.



ATHLETIC CLUB

E.- GAUZATZEKO GEHIENEO EPEA

Gehieneko gauzatze-epea 7 hilekoa dela ezartzen da, esleipenetik zenbatzen hasita. Esleipena jakinarazteko erreferentziako datatzat apirilaren 15a hartzen bada, derrigorrez bete beharreko **gehieneko** epe partzial hauek finkatzen dira:

- Fabrikazio-planoak amaitzea: 2021eko maiatzaren 15a
Gehienez hilabete batekoa izango den epe horretan, Jabeekin eta obraren Zuzendaritza Fakultatiboarekin batera lan egingo da, akaberei buruzko xehetasunak adosteko, baita fabrikazio-planoak behin betiko berrikusi eta baliozkotzeko ere. Horrenbestez, epe horren barruko 10 egun gorde beharko dira dokumentazioa berrikusteko.
- Eskailera mekaniko guztiak fabrikatzen amaitzea: 2021eko abuztuaren 15a.
- Obra amaitzea, martxan jartzea barne: 2021eko azaroaren 15a
Kontuan hartzekoa da esleipendunak modu bateratuan lan egin beharko duela obra zibila eta eskailerak jartzeko behar diren instalazioak gauzatzen dituen kontratarekin. Enpresa horrek 2021eko uztailaren 5ean hasiko ditu lanak, eta 2021eko urriaren 5a baino lehenago amaitu.
Lehiaketa honetan esleipena lortzen duen enpresaren muntaia-planaren arabera, obra-plan bat zehaztuko da obra zibilaren eta instalazioen esleipendunarekin, hutsuneak egokitzeko lanak muntaiaren beharren arabera ordenatzeko. Hala, irizten da kontratu honen esleipendunak 2021eko abuztuaren 15ean izango duela lehen eskailerak estadioan instalatzeko modua, eta lekua libre uzten joango zaio, egiten den aurrerapen errealaren neurrian.
- Mantentze-epea: 10 urte, azken eskaileraren instalazioa amaitzen den datatik zenbatzen hasita. Hala eta guzti ere, Athletic Clubek beretzat gordetzen du mantentze-lanen kontratua ebazteko eskubidea, zerbitzua hastetik 5 urte igaro ostean.

Athletic Clubek beretzat gordetzen du hasiera-datak aldatzeko aukera.

Lanak ahalik eta epe egingarri laburrenean gauzatzea kontuan hartuko da esleipena egiteko; lizitaztaileak proposatu beharko du hori, egingarria eta arrazoizkoa dela egiaztatuz eta azalduz. Lanak epe horretan gauzatzeko konpromisoa funtsezko betebeharra izango da esleipendunarentzat, eta bete ezean, dagokion penalizazioa ezarriko da.

Eskailera bakoitzeko, tarteko helburuak betetzeko konpromisoak ezarri beharko dira. Konpromiso horiek lotesleak izango dira, eta ez betetzeak penalizazioa eragingo du.





ATHLETIC CLUB

Lanak planifikatzeko orduan, gogoan izan beharko da estadioan ikusleak egon daitezkeela, partidu bat edo harmailak erabiltzen diren ekitaldi bat dagoenean. Horregatik, kontuan hartuko da bi astean behin, gutxi gorabehera, lan-eremuek batuta eta segurtatuta geratu beharko dutela estadioa normaltasunez erabili ahal izateko, eta libre utzi beharko direla sarrerak, pasalekuak eta ebakuazio-guneak. Hortaz, **beharrezkotzat jotzen da eskailera bakoitzeko egin beharreko lanak partiduen arteko denbora-tarteetarako planifikatzea, lanak amaituta eta ingurua garbi geratzeko.**

F.- LUZATZEKO AUKERA

Ez dagokio.

G.- TRAMITAZIOA

Baldintza-agirien arabera.

H.- ESLEIPEN-PROZEDURA

Irekia.

I.- ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Oharra: Baldintza-agiri honetan adierazitakoari jarraikiz aurkeztu beharko dira eskaintzak; saihestuko da eskaintzaren puntu batean baino gehiagotan informazioa errepikatzea, baita lehiaketa honetarako berariaz prestatu ez den dokumentazio generikoa erabiltzea ere. Oso garrantzitsua da aurkeztu beharreko dokumentazioaren ordenari, edukiari eta luzerari buruzko jarraibideak betetzea; agiri honen 7.6 puntuan (“Interesdunek aurkeztu beharreko dokumentazioa”) adierazita dago dokumentazio hori zein den. Adierazitako ordenarekin eta gehieneko luzerarekin bat ez datozen eskaintza guztiek penalizazioa jasango dute, balorazio teknikoa egitean.

I.1.- AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN D(IR)EN IRIZPIDEA(K) – PUNTU-KOPURUA 60 puntu gehienez

- Proposatutako **ekipamenduen** ezaugarri teknikoak
Zehaztu egin beharko dira proposatutako ekipamenduen ezaugarri tekniko guztiak, eta baloratu egingo da nola egokitzen zaizkien proiektuaren espezifikazio teknikoari, baita espezifikazio horientzat planteatzen diren balizko hobekuntzak zeintzuk diren ere.
- Proposamen teknikoaren kalitatea
Proposamenaren kalitate teknikoa baloratu da **memoria teknikoaren eta koordinazio-memoriaren** bitartez. Aztertu egingo dira obraren zailtasun nabarmenenak eta haiek gainditzeko proposatutako konponbideak, baita planteatutako lan-metodologia ere; berebiziko arreta emango zaio **obra zibilaz eta instalazioez arduratuko den enpresarekiko koordinazioari** .
Halaber, baloratu egingo dira estadioan partiduak edo beste ekitaldi batzuk egitearekin koordinazioa ziurtatzeko neurriak.





ATHLETIC CLUB

- Proposatutako **gutzizko epea, Planifikazioaren azterketa** eta tarteko helburuak. **Baloratu egingo da gauzatzeko epe laburrena egiten duen proposamena, behar bezala justifikatua, eskailera bakoitzeko tarteko helburuak betetzeko konpromisoarekin** eta unitate garrantzitsuenen errendimendu-planifikazioaren analisiarekin, baita epea aurrezteko neurriekin eta desbideraketen analisiarekin ere.
- Obretara bideratutako **giza baliabideen eta baliabide materialen** egokitasuna. Baloratu egingo da proposatutako lantaldearen maila, baita taldearen antolamendua ere, bulego teknikoari, zuinketari, topografiari, delineazioari eta planoak eta *as built* dokumentazioa prestatzeari dagokienez. Azpikontratarik izatekotan, haien konpromiso-gutunak gehitu beharko dira. Baloratu egingo da obrari taldeak/makineria atxikitzea, eta, hala izanez gero, aurreikusitako langileen eta makineriaren histograma eskatzen da.
- **Antzeko instalazioei buruzko erreferentziak**
Baloratu egingo da azken 3 urteetako eta antzeko tamainako proiektuei buruzko erreferentziak aurkeztea, Europakoak oro har eta estatukoak bereziki. Era berean, kontuan hartuko dira eraikinetan egindako instalazioen erreferentziak, non eskailerak San Mameseko estadioan aurreikusten direnen antzeko maiztasunez eta bizitasunez erabili diren. Erreferentziek espresuki adieraziko dute eskaintzaren egilea eskaileren fabrikazioaz, horniduraz eta muntaiaz arduratu den, edo hiru zeregin horietako batzuk besterik ez dituen egin.
- Proposamenen egokitasuna **Lan Arriskuen Prebentzioaz eta Kontrol eta Kalitate Planaren** azterketaz den bezainbatean.
Baloratu egingo da lan-arriskuen prebentzioko kudeaketa-egiaztagiria izatea, baita (hala badagokio) egiten diren obraren azterketak ere, segurtasuna eta kalitate-kontrolko planaren ezarpena bermatzeko. Bereziki, arlo horri dagokion dedikazioa.
- Akatsen, omisioen eta proiektuari egindako aldaketen zerrenda.
Eskaintzaren egilearen ustez proiektu teknikoak akatsak edo omisioak baditu, sail honetan adierazi eta ekonomikoki baloratuko dira.
- Proiektua hobetzeko edo/eta ekonomikoki aurrezteko neurriak.
Positiboki baloratuko dira eskaintza hobetu dezaketen hobekuntza-neurriak eta aurrezpen ekonomikoa dakartenak, lehiaketa-oinarri hauetan zehaztutako kalitatea eta irismena gutxitu gabe. Neurri horiei buruzko azalpen teknikoak egingo da modu independentean, eskaintzaren egileak aurkezten duen proposamen teknikoaren barruan, Athletic Clubi ekonomiaren aldetik ekarriko liokeenaren balorazioarekin batera. Aurrezteko edo/eta hobetzeko neurri horiek argiak eta zehatzak izan behar dute, bai alde teknikoari bai ekonomikoari dagokienez, eta ez dira inolaz ere eskaintzako azken prezioan kontuan hartuko. Athletic Clubek esleipen-kontratua sinatu ondoren baloratu eta onartu edo baztertuko ditu neurriak, esleipendunarekin zuzenean, eta, onartuz gero, kontratuaren prezio itxitik kenduko dira.

ERAKUNDEAREN EGOITZA - SEDE SOCIAL - HEAD OFFICE
IBAIGANE, ALAMEDA MAZARREDO, 23. 48009 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 424 08 77

KIROL INSTALAZIOAK - INSTALACIONES DEPORTIVAS - SPORTS CENTRE
GARAIOLTZA, 147, 48196 LEZAMA (BIZKAIA) - TEL: +34 94 455 60 88

SAN MAMES ZELAIA - ESTADIO SAN MAMES - SAN MAMES STADIUM
BAZKIDEENGANAKO ARRETA (20. ATEA) - ATENCIÓN AL SOCIO (PUERTA 20)
PASEO RAFAEL MORENO PITXITXI, S/N, 48013 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 406 18 98

WEBSITE: ATHLETIC-CLUB.EUS





ATHLETIC CLUB

- **Mantentze-plana**

Mantentze-planaren edukia baloratuko da, kontuan izanda aurkeztutako giza lantaldearen prestasuna, intzidentzien aurreko erantzun-denbora, funtzionamendu-konpromisoak, esleipendunaren kontura konpondu edo ordezkatu diren elementuak eta piezak, ATHLETIC CLUBi aholkularitza eta informazioa emateko konpromisoak eta eskaintzaren egileari egokia iruditzen zaion beste edozein informazio.

- **Fundación Athletic Club Fundazioa edo/eta Athletic Clubekiko harreman komertziala.**

Fundación Athletic Club Fundazioko kidea izatea edo/eta Athletic Clubekin nolabaiteko harreman komertziala izatea positiboki baloratuko da lizitazio honetan, eta kontuan hartuko da, halaber, zein kategoriatan gauzatzen den entitatearekiko lankidetzaz.

Eskaintza onartu ahal izateko, gutxienez 42 puntu eskuratu beharko dira tramite honetan. Puntu-kopuru horretara iristen ez diren eskaintzak ez dira kontuan hartuko esleipenari begira.

I.2.- AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITE(Z)KEEN IRIZPIDEA(K)

PUNTU-KOPURUA 40 puntu gehienez

Prezioa (10 urteko mantentze-lanen prezioa barne, atal horri zenbat dagokion adierazita)

$$\text{Puntu-kopurua} = (\text{Onartutako eskaintza merkeena} \times 40) / \text{baloratu beharreko eskaintza}$$

Eskaintza ekonomikoak barne hartu beharko ditu akatsak eta omisioak, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideen atalean adierazitakoak, hau da, ez da gehikuntzarik onartuko eskaintako prezioan, jatorrizko proiektuaren akats edo omisioen ondoriozkoak izanik ere. Eskaintzaren egileak bere burua behartzen du proiektu teknikoa berrikusteko, eta, lehiaketa honetarako eskaintza egiten duen unetik, ontzat ematen du proiektu teknikoa baliagarria eta nahikoa dela lehiaketaren helburua eraikitzeko.

Aurrezte ekonomikoko neurriez den bezainbatean, eta dagokion atalean azaldu bezala, Athletic Clubek gerora onartu edo baztertuko ditu. Hortaz, ez dira inolaz ere eskaintako prezio itxiaren barrukotzat jo behar, eta, onartuz gero, prezio horretatik kenduko dira.

J.- BERMEAK

- BEHIN-BEHINEKO BERMEA: 10.000 €
- BEHIN BETIKO BERMEA: esleipen-zenbatekoaren % 5 (BEZ gabe)
- ATXIKIPENAK: faktura bakoitzaren zenbatekoaren % 5





ATHLETIC CLUB

K.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez dira prezioak berrikusiko.

L.- BESTELAKO AUKERAK BAIMENTZEA

Kontratista behartuta egongo da lizitazioaren eskakizunekin bat datorren proposamen bat aurkezteko, Proposamen Nagusi gisa eskainiko dena.

Hala ere, alternatibak edo bestelako aukerak proposatzeko aukera izango du, prezioa gutxitu eta egikaritze-epaia laburtzeko.

M.- KONTRATISTEN SAILKAPENA EDO KAUDIMENA EGIAZTATZEKO BITARTEKOAK

Taldea: J). Azpitaldea: 1). Kategoria: 4

N.- PENALIZAZIOAK

Baldintza Orokorren Agirian ezarritakoren arabera.

O.- BERME-EPEA

Baldintza Orokorren Agirian ezarritakoren arabera.

P.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA

2021eko MARTXOAREN 22ko 12:00ak baino lehen.

Q.- DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO LEKUA

Eskaintzak entregatzeko lekua Athleticen egoitza izango da, Ibaigane; Mazarredo zumarkalea 23. 48009 Bilbao.

S.- ASEGURUAK

Esleipendunak eskaintzaren barruan sartuko ditu behar diren aseguruaren kontratazio-kostuak (erantzukizun zibila, eraikuntzako arrisku oro...), eta gehitutako asegurudun gisa sartuko ditu, aseguruotan, bai Athletic Clubeko langileak bai Zuzendaritza Fakultatibokoak ere.

ERAKUNDEAREN EGOITZA - SEDE SOCIAL - HEAD OFFICE

IBAIGANE, ALAMEDA MAZARREDO, 23. 48009 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 424 08 77

KIROL INSTALAZIOAK - INSTALACIONES DEPORTIVAS - SPORTS CENTRE

GARAIOLTZA, 147, 48196 LEZAMA (BIZKAIA) - TEL: +34 94 455 60 88

SAN MAMES ZELAIA - ESTADIO SAN MAMES - SAN MAMES STADIUM

BAZKIDEENGANAKO ARRETA (20. ATEA) - ATENCIÓN AL SOCIO (PUERTA 20)

PASEO RAFAEL MORENO PITXITXI, S/N, 48013 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 406 18 98

WEBSITE: ATHLETIC-CLUB.EUS

